

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Eguna ospatzeko antolatutako ekitaldi programa astearte honetan hasiko da Nafarroako Jauregirako bisitekin

*Lehenengoz, Miguel Sanz Lehendakari ohiaren margolana ikusi ahal izango da, behin Nafarroako Lehendakarien erretratuen galerian jarri eta gero*

Lunes, 21 de noviembre de 2011

Nafarroako Eguna ospatzeko antolatu den ekitaldi programa asteartea honetan, azaroak 22, hasiko da, Nafarroako Jauregirako bisita gidatuekin. 1851. urtetik Foru Gobernuaren (aurrez, Foru Diputazioaren) egoitza ezagutzeko aukera emango du ekimenak.

Azaroaren 22a eta abenduaren 2a artean 52 bisita egingo dira. Horietan 2.000 pertsona baino gehiagok parte hartu ahal izango dute. Lan egunetan bisitak arratsalde izango dira; asteburu eta jai egunetan, berriz, azaroaren 26 eta 27an eta hilaren 29an -Saturnino Deunaren eguna-, goiz eta arratsalde izango dira.

Izen ematea doakoa da. Telefono bidez egin behar da, 948 290 363 zenbakira hots eginez, astelehenetik ostiralera, 9tatik 18tara. Gaur eguardirarte, 600 pertsonak egin dute eskaera. Oraindik ere hainbat leku libre geratzen dira, edozein egunetarako, baina bereziki azkenengoetarako.

Bisitak bideo batekin hasiko dira, egoitza eta bere eduki eta historiari buruzkoa. Ondoren, Solairu Nobleko gela nagusienak bisitatuko dira eta, azkenik, Nafarroako bereizgarri bat eta Jauregiari buruzko liburuxka bat banatuko zaie bisitariei.

### Miguel Sanzen koadroa, Nafarroako Gobernuaren erretratuen galerian

Miguel Sanzen erretratuak, Tomás Muñoz Asensiok olioz margotutakoa, Nafarroako Jauregiko erretratuen galerian zintzilikatu dute, aurrez Lehendakari izandakoenekin batera.

Azken zazpi hamarkadetan Nafarroako erakundearen buru izandakoen erretratuak jasotzen du Lehendakarien Aretoak -1978. urte arte lehendakariorde tituluarekin eta hortik aurrera Lehendakariarenarekin-. Ohitura da, behin Lehendakariak euren kargua uzten dutenean, bertan beren erretratu bat zintzilikatzea.

Hauxek dira gaur egun galeria osatzen duten hamaika agintarien erretratoak, parentesi artean euren agintaldiek izandako iraupenarekin: Tomás Domínguez Arévalo (1940-1949), José María Arellano Igea (1949-1952), Miguel Gortari Errea (1952-1964), Félix Huarte Goñi (1964-1971), Amadeo Marco Ilincheta (1971-1979), Jaime Ignacio del Burgo Tajadura

(1979-80 eta 1984), Juan Manuel Arza Muñuzuri (1980-1984), Gabriel Urralburu Tainta (1984-1991), Juan Cruz Alli Aranguren (1991-1995), Javier Otano Cid (1995-1996) eta Miguel Sanz Sesma (1996-2011).

Erretratu gehienak -hamaikatik zortzi- César Muñoz Sola margolari tuterarrak egindakoak dira. Gabriel Urralbururena Pedro Manterola Armisén-ek margotu zuen eta Javier Otano eta Miguel Sanzenak Tomás Muñoz Asensioren lanak dira. Guztiek neurri bera dute, 100 x 81 zentimetrokoa, eta urre koloreko markoa.

### **Ekitaldi programa**

Nafarroako Eguna ospatzeko antolatu den ekitaldi programa azaroaren 22an hasi eta abenduaren 3an amaituko da, berez Nafarroako Eguna ospatzen den egunean. Egun horretan, Xabiergo Santutegian Xabiergo San Frantziskoren omenezko elizkizuna egingo da, Nafarroako Lehendakariak Foru Komunitateko agintari eta ordezkari harrera egingo die eta Nafarroako Urrezko Domina banatuko da. Honez gain, beste herrialdeetako elkarteek kultur jaialdi bat burutuko dute eta Foru Komunitateko 70 bat herritan beste hainbeste kontzertu eskainiko dira Nafarroako abesbatza eta musika taldeen eskutik.